

Donostiako Arte Eszenikoen Tailerra



Izaki babesgabea

Anton Txekhov, 1884

Euskarazko bertsioa

Ritxi Lizartza, 2005

Julia Marin, 2012

<http://www.youtube.com/watch?v=2RUHkB1sCS8>

Zuzendaria: Belen Cruz

Zuzendari-laguntzailea: Julia Marin

Azpeitiar aholkularia: Erika Olaizola

Aktoreak: Alazne Etxeberria, Juan Mari
Zunzunegi, Freddy Serendipity

Argiak: Edi Naudo

Bideoa: Freddy Serendipity

(Rustinov bankaria eserita ageri da bere bulegoan, hanka aulki baten gainean jarrita. Atea jotzen dute. Potxatkin laguntzaileak atea zabaltzen du)

Emakumea: Eun on. Zuzendariye, faorez?

Potxatkin: Zatoz nirekin, andrea.

Emakumea: Letu! *(Agiri bat ematen dio, baina gizonak ez du irakurtzen)*

Rustinov: Egun on, andrea.

Emakumea: Zuretzako izengoa ona.

Rustinov: Etzazula pentsa... Baina eseri, mesedez.

Emakumea: Eskerrik asko.

Rustinov: Zer nahi duzu?

Emakumea: Hau lotsie! *(Negar itxura. Poltsari indarrez helduz)*

Rustinov: *(Zarata handiak enbarazu egingo dio)* Lasaitu zaitez, emakumea. Eta esaidazu zer duzun.

Emakumea: Emateunez, hau etzaio inorri inporta mundu ozun. Eta ezta huskeriye e! Lagundu, faorez... faorez...

Rustinov: Ezer baino lehen, kontatu beharko didazu zer gertatzen den.

Emakumea: Jainkuek lagunduko ahal dit zure bitartez!

Rustinov: Ahal badut, lagunduko dizut; ez izan zalantzarik. Baina esaidazu... Zein da arazoa zehatz-mehatz?

Emakumea: Hara... Nere gizona, Xukin aholkulariye, gaxo eon da. Bost hilabete! Bost hilabeteko sufrimentue!

Rustinov: Gizajoa! Zer zegoen, ba, gotak jota, ala?

Emakumea: Nahiko nuke hala balitz! Nerbiyotatik jota ibili da. Eozein aitzaki nahikue zun bere onetik ateatzeko, ikutu orduko... *(Oihuka hasten da)*. Ta holaxe, etxin bueltaka. *(Berriz ere oihu)*

Rustinov: *(Eutsi nahian)* Utz ditzagun xehetasunak. Harira, harira...

Emakumea: Ba, beitu, bere gaixotasune dala-ta hainbeste denboa eman dunez lanik in gabe... kalea bota debe. Arrazoirik gabe. Azalpenik gabe, baño kalin utzi debe.

Rustinov: Sentitzen dut.

Emakumea: Gehio sentitzet nik.

Rustinov: Ez da harritzekoa. Baina... kontatu didazuna...

Emakumea: Hau zoritxarra, Jainku maittie!

Rustinov: ...zoritxar horrek... ba al du, ba, zerikusirik gure bankuarekin?

Emakumea: Ezin dezu imaginatu re in nolakuk izen dien hilabete hauek. Benetako inpernue, jauna! Ezin loinda...

Rustinov: Horixe. Gizajoa!

Emakumea: Ez, jauna. Nik. Nik ezin nun loik ein. Ta geo, egunez... Eizu hau, eta eizu bestie... Eizu dana! Etxie zaintu, umiek zaintu, txakurrei jaten eman, ahizpen beye jetzi, bea re gaxo dao ba...

Rustinov: Bera ere bai?

Emakumea: Zoritxar danak batea etortzeie.

Rustinov: Emakume gajoa!

Emakumea: Beye gajue! Ta ni re bai, gajue ni!

Rustinov: Eta ahizpak, ez al dizu laguntzen?

Emakumea: Bea re gaxo dao. Beyek kutsau du. Gañea beyek gure katue zapaldu ta kojo utzi zun. Ordun etxin sartu genun ta harramaska intziyon Odesatik etorri dan gure ilobai. Iloba ezta nire ahizpen alaba, nere gizonan anaiena baizik, bolada bateako dao gurekin, bere aitte kartzelan sartu debelako eta bere amak eztulako ezer jakin nahi. Beraz umien negarrak —hamabost hilabete dauzke— erabat aztorau ditu nire gizonan nerbiyuek. Ta nire gizonan nerbiyuek zaunka batien jartzebe txakurre, eta nik... nik errezaue itet problema guzti hauek konpon daitezen, beye senda dadin ta esne ona eman dezan hau ezta-ta bizimodue, zuzendari jauna!

Rustinov: Noski, noski, ulertzen dut... Baina horrek zer zerikusi dauka gure bankuarekin?

Emakumea: Eta erremateako, nere gizonan soldatie kobratzea jun naizenien... (*Oihuka*) Hotalau errublo eta hota hamaxei kopek kendu ez dizkiyobe ba!

Rustinov: Ez da beharrezkoa oihu egitea, andrea. Tira, esaidazu zer nahi duzun nik egitea.

Emakumea: Ba, nere gizonari eskubide osoz tokatzen zaiona ematie: hota lau errublo eta hota hamaxei kopek. Ukau ein dizkie emakume gajue naizelako. Ahule naizelako. Parre eite be. Burlau ite zaixkit, jauna. (*Algaraz barre egiten du. Rustinoven nerbioak lehertzeaz daude*) Eztauke bate grazik. Mixerableik! Ni bezalako emakume babesgabe batez parre itie ere... Parregarriye iruditze zaizu? Parre eiteko gogue emateizu? (*Negarrez*)

Rustinov: Batere ez. Benetan. Hala ere, sentitzen dut hau esan beharra: lekuz nahastu zara. Dirua ez duzu hemen erreklamatu behar. Zure senarrak lan egiten zuen bulegora jo behar duzu.

Emakumea: Zuk ebai? Zuk ere kalien utziko nauzu? Hamar buleotan izen naiz, ta inork eztit aitu nahi! Ilie galtzen ai naiz! *(Ile adatsa kentzen du burutik)* Ikusten?

Rustinov: Mesedez, andrea, gorde zure ileak eta entzun: hau banku bat da. Ni bankaria naiz. Hemen jendearen dirua gordetzen dugu, eta diru horrekin aberastu egiten gara negozioak eginez. Horixe da dena. Hemen ez ditugu injustiziak konpontzen, eta are gutxiago injustizia ekonomikoak. Ulertzen?

Emakumea: Zertaz ai zea?

Rustinov: Ezin dizut lagundu.

Emakumea: Ezin dizula lagundu?

Rustinov: Ezin dut.

Emakumea: Ezin dezu.

Rustinov: *(Arnasa sakon hartuz)* Ez.

Emakumea: *(Poltsatik kartazal bat atera eta mahai gainean jarriz)* Aiba!

Rustinov: Zer da hau?

Emakumea: Hortxe dakezu medikuen zertifikaue! Benga, letu, ta esaiazu: nere gizona nerbiyotatik jota dao, bai eo ez?!

Rustinov: Bai, bai, ez daukat batere zalantzarik, andrea, batere ez.

Emakumea: Baina letu zazu, letzeko zertifikaue!

Rustinov: Ez da beharrezkoa. Esan dizut sinesten dizudala.

Emakumea: Lau ordu ilera batien eon naiz zertifikau honen zai, ta zu etzea beiratzeko kapaz?

Rustinov: Ondo da. Irakurriko dut. Ikusten? Papera hartu... eta irakurri egingo dut. Irakurtzen ari naiz. Eta bai, bai, hemen oso garbi jartzen du. Zuk diozuna. Nerbioak... zure senarra nerbioek jota dago. Baina paper honek ez du ezer konpontzen. Leku okerrera etorri zara zure dirua erreklamatzera. Galdeiozu senarrari nora joan behar duzun.

Emakumea: Beak eztaki ezer, jauna. Ezta ezer esateko gai, hauxe bakarrik: "Zuri etzaizu inporta... Alde hemendik! Utzi pakin!"... hoixe, besteik ez...

Rustinov: Noski, nerbioengatik. Bere onera etortzen denean, galdetu eta zoaz berak esaten dizun lekura; baina ez da hemen izango, hemen ez baitugu zerikusirik horrekin, ulertzen?

Emakumea: Zuk erdiye ematie izengo bazenu sikiera...

Rustinov: Sentitzen dut, baina joateko eskatu behar dizut.

Emakumea: Zuk erdiye emanda... Bakit hau bankue dala, baño nere ahizpen beye gaixoik dao...

Rustinov: *(Ia bere onetik aterata)* Bankua, bai, horixe da, bankua! Eta lanez lepo gabiltza; asike, barkatuko didazu... *(Zutitzen saiatzen da, baina hezueriak min ematen dio)* Aiii...!

Emakumea: Meikuna jun berko´zu.

Rustinov: Potxatkin!

Emakumea: Besterik ezpa bost errublo...

Rustinov: Entzun: hona diru eskean etortzea harategira joan eta ilea mozteko eskatzea bezalaxe da...

Emakumea: Galtzen ai naiz-ta.

Rustinov: ...botikara joan eta dibortzioa eskatzea bezalaxe... Potxatkin!

Emakumea: Goziek nao, jauna, eta katue beteinariyuna eman berra dauket.

Rustinov: Ba, jantzazu katua! Dagoeneko jan ez baduzu behintzat.

(Laguntzailea sartzen da)

Potxatkin: Deitu egin didazu, zuzendari jauna?

Rustinov: Lagundu emakume honi irteerara.

Potxatkin: Mesedez, andrea...

Emakumea: *(Altxatu eta Potxatkinengana doa)* Ai, gizona! Emakume ahule naiz. Umezurtze eta xei seniden artian zarrena. Oain nere ahizpen beye...

Rustinov: Ixo! Isildu dadila behingoz!

Emakumea: Beitu, zertifikau bat daket hemen...

Potxatkin: Badakit, andrea, erakutsi didazu lehen.

Emakumea: Baño eztezu letu.

Potxatkin: Bai, irakurri dut.

Emakumea: Gañetik beitu bai, baño letu...

Rustinov: Letu zazu, mesedez, eta joan dadila behingoz!

Potxatkin: *(Azkar irakurtzen du)* Nerbioak... haserrealdiak... eta abar eta abar. Lanerako ezgaitua... Letuta. Eta orain lagundu, ez zaitut indarrean atera nahi.

(Rustinovek Potxatkiri deitzen dio, hurbildu dadin)

Rustinov: Aurre egiten badizu, deitu zaintzaileei, atezainari, armadari! Egizu beharrezkoa dena. Baina atera dadila nire bulegotik oraintxe!

Emakumea: Ikutze banauzue, bulla eingo et, eta Errusi ozun aituko a. Klientiek galduko ituzu. Salaketa jarriko izuet, tratu txarraatik. Bortxatzaileak! Lotzagabiek! Hola tratatzie ere andre gajo bat, halako andre ahule...

Rustinov: Ahule? Tifoia baino okerragoa zara-ta, sumendi baten laba kontrol gabea baino okerragoa... Ihesi doan elefante talde bat ematen duzu, Bibliako zazpi izurriteak, urakan bat arbolak errotik atera eta etxeak txikitzen dituena... Zuk... pikutara bidaliko duzu nire buru osasuna! Non jarri ditut nire balerianak?

Emakumea: Zure egoeran, ez tet uste baleriana batek...

Rustinov: Isildu zaitez! Ixo!

Emakumea: Ordun, erabakiye hartuta dao? Lagundu eingoizu?

(Eseri egiten da berriro)

Rustinov: Jo ezazu, Potxatkin! Akatu! Hau arrazoiaren porrota da! Bortizkeriaren garaipena! Hiltzazu!

Potxatkin: Baina, jauna...

Emakumea: Ni eskubidez nirie dana eskatzea etorri naiz, besteik ez!

Rustinov: Berriro ez! Ezin dut jasan!

Potxatkin: *(Besotik helduz)* Lagunduidazu zuzendari jaunaren bulegotik kanpora.

Emakumea: Gizon hori ezta jauna! Ta zuk ez ikutu! *(Oihu histerikoak. Poltsarekin jotzen du Potxatkin)* Lagundu! Lagundu! Jipoitzen ai zaixkit! Akau eingo nabel...

Rustinov: Askatu! Askazazu!

Konstantin: Baina besotik heldu besterik ez diot egin...

Emakumea: Lagundu! Akau eingo nabe...!

Rustinov: Hil!! Hiltzazu!!

Potxatkin: *(Zer egin ez dakiela, joan egiten da)* Ni laguntzailea naiz besterik ez...

(Emakumeak begizkoa botatzen dio)

Emakumea: Madarikatue! Madarikatue zu eta zure famili ozue! Madarikatuek zure bankue eta zure klientiek! Aber arruinatze zean, ta kale gorriyen geatze zean eskien... Hotzak akau ta karro batek harrapatze zaittun! Aber malariak seme-alabak akatze ixkizun!

Rustinov: Sorgin honek galbidera eramango nau! Tori zure dirua! Tori eta ospa hemendik! Bueltatu zaitetz zure infernura! *(Dirua atera eta eman egiten dio. Negarrez hasten da mahai gainean, lur jota)* Mesedez..., alde egin dezala...!

Emakumea: Nik tokatzen zaitena besteik ez tet eskatzen: hota lau errublo eta hota hamaxei kopek. Zor diebena, besteik ez.

(Dirua kontatu eta bueltatu egiten dio sobratutakoa. Irteteko imintzioa egiten du, baina itzuli eta eseri egiten da)

Emakumea: Noiz bueltako naiz nere gizonaatik hitz eitea?

Rustinov: *(Pasata)* Zer...? Zertaz...?

Emakumea: Nere gizona. Esan dizut lanpostue galdu dula... Eztezu pentsauko lanik in gabe bizitzeik dagonik...

Rustinov: Baina zer nahi duzu nik egitea?

Emakumea: Hain jatorra zea... Zerbait exkaintzie izengo bazenu... Laguntzaile postue sikiera... Oso goorra ite zait gizona beti etxien ikustie!

Rustinov: Utzi bakean! Begira, hor duzu zure dirua! Orain zoaz eta utzidazu bizitzen! Utzi bizitzen!

Emakumea: Nerbiyo hoiek beitu berko ituzu. Jun zaitte meikuena eta bueltau biyer eta hitz eingo deu nere gizonaz. Aber biyer goxuo portaze zean emakume gajo honekin. Biyer arte. *(Irten egiten da)*